

Webgune honek *cookie*-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#)

[SORTU KONTUA](#)[SARTU](#)[≡ ATALAK](#)

berria

eratzeko urratsa egin dute

'Euskal Sagardoa' izendapena lortzeko eskaera erregistratu dute euskal sagardogileek Jaurlaritzan. "Merezi duen duintasuna" eman nahi diote produktuari. Sektoreko elkarte guztien babesa du egitasmoak.



Arantza Tapia sailburuarekin elkartu dira proiektuaren bultzatzaileak. BERRIA

2016-09-05 / Oihan Vitoria



Euskal sagardogileen urteetako eskaria izan da, eta, lauzpabost urteko borroka luze eta neketsuaren ostean, ofiziala da: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ekoizten den sagardoarentzat sor-marka propioa sortzeko urrats erabakigarria egin dute sagardogileek. *Euskal Sagardoa*



izendapena lortzeko eskaera bateratua erregistratu dute gaur Eusko Jaurlaritzan. Sektoreko elkarte guztiek metatu dituzte indarrak: Arabako sagar eta sagardogileen elkarteak, Bizkaikoak, Gipuzkoakoak, Sagardo Mahaia elkarteak, Sagar Uzta elkarteak, Bialka elkarteak eta Fruitel elkarteak.

Euskal Herriko historian erro sakonak dituen edaria da sagardoa, eta izendapena lorpen handia litzateke produktuari duintasuna emateko; besteak beste, bertako sagastien aldeko apustua indartuko lukeelako. Bi zutabe garrantzitsu ziurtatuko lituzke: jatorria eta kalitatea. Sagastiak aldatu, sagarrak hobeto ezagutu eta heldutasun puntu egokiak bilatzeko azterketak egin ondoren, harago jotzeko asmoa dute: "Zenbait urteren buruan, beharrezkoa den sagar guztia hemen sortzea da helburua". Bide horretan, *Euskal Sagardoa* sor-marka "ezinbesteko lanabesa" izango litzateke egitasmoaren bultzatzaileentzat.

Gehienez, sei hilabete

Sagardogile eta baserritarrak sagasti asko jartzen ari dira azken urteotan; alferrik galtzen ari diren lursail ugari daude, sagastiak jartzeko oso aproposak direnak. Horiek aprobetxatu nahi dituzte, kalitatean beste pauso bat eman nahian. Izendapenak, halaber, "marko bateratu bat" eratzea ahalbidetuko lieke elkarte eta administrazioen artean lan egiteko. Ekoizleek "lehenbailehen" merkaturatu nahi dituzte bereizgarri hori edukiko duten botilak.

Hasteko, baina, Arantza Tapia sailburuarekin batzartu dira proiektuaren sustatzaileak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari baitagokio eskaeraren lehen tramiteak egitea. Askok jota, sei hilabeteko epean jakinaraziko du jatorrizko izendapena sortzea onartzen duen edo ez. Ebazpena aldekoa balitz, bi hilabeteren buruan EAEko Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta Nekazaritza Ministeriora joko luke Jaurlaritzak. Espainiako Aldizkari Ofizialean publikatu bezain pronto sartuko litzateke indarrean *Euskal Sagardoa* sor-marka. Gaur-gaurkoz, Asturiasko sagardoak baino ez dauka izendapen hori; EAEn *Eusko Label* bereizgarria dute bertako sagarrekin eta modu naturalean ekoizitako sagardoek.

♥ Recommend

↗ Partekatu



Join the discussion...



Santi Angulo • duela egun bat

Euskal Sagardoa izeneko marka horren barruan Nafarroan, Trebiñun edo La
sortzen den sagardorik ba al dago? Euskal mundu hori baskongadetakoa al c

^ | v • Erantzun • Partekatu ›

✉ Harpidetu

🗨 Gehitu Disqus zure webgunera

Pribatutasuna

Orain
berria laguna gehiago da



Oihan Vitoria

Jarraitu @oihanvito

PUBLIZITATEA

Langile bat hil da Tuteran



Bankuetan jarritako diru publikoaren %5 soilik berreskuratu du Espainiak



'Roaming'-a ezabatzeari mugak jartzea proposatu du Europako Batzordeak

Albiste nagusiak



EAJk irabaziko lituzke Eusko Legebiltzarrerako bozak, EITBren arabera



EAJk herritarrei galdetu nahi die estatutu berri bat Madrilera bidali baino lehen

Arnaldo Otegi: "Herri honen etorkizuna ez dute epaiek idatziko"

Gehien irakurriak

- 1 «Turkiako Gobernuak azal diezagula zer duen ezkutatzeko Imralin» 
- 2 ETB berriro ikusi ahal izango da Nafarroan irailaren 22tik aurrera 
- 3 Arnaldo Otegi: "Herri honen etorkizuna ez dute epaiek idatziko"
- 4 Himen nazionala
- 5 "Terroristak goratzen dituztenak babestea" egotzi dio PSNk Asironi, Tximeleta taldea kontratatzeagatik 
- 6 Mendeetako erresistentzia 

7 Arnaldo Otegiaren hautagaitza
behin betiko baztertu du
Auzitegi Konstituzionalak



8 EAJk irabaziko lituzke Eusko
Legebiltzarrerako bozak, EITBren
arabera



9 Nola iragazi uholdearen emaria



10 Nork eta zer estali

Berria.eus - Euskal Editorea S.L.

Telefona: 943 304 030 • Faxe: 943 590 172

Helbide elektronikoak: Webgunea: webgunea@berria.eus |

Publizitatea: publi@bidera.eu

Harpidetza: harpidetza@berria.eus

Lege Informazioa | Pribatutasun politika |
Cookieak | Publizitatea

 Creative Commons lizentzia



berria
taldea

berria

bidera
zerbitzuak

www.euskalherriko.plaza.com

Mauka

BADOK

HITZA

Hamaika
telebista

iragarkilaburrak.com

TALEA
KULTURA KONGRESUA